

## Hiriburuetako alkate euskaldunak, gurean

2016/03/10

Bilbo, Iruñea, Maule, Donostia eta Gasteizko alkateak bilduta, eta *Euskal Herriko hiriburuetako alkateak*. *Euskararekiko harremana eta etorkizuneko erronkak* goiburuarekin, mahai-ingurua egin da gaur, martxoak 10, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Eskoriatzako campusean. Entzulez betetako areto batean, Juan Mari Aburtok, Joseba Asiron, Michel Etchebestek, Eneko Goiak eta Gorka Urtaranek azaldu dituzte, agintari moduan, euskararen inguruan dituzten erronkak; gainera, hizlariak zirriboratu dute euren biografia linguistikoa eta partekatu dute entzuleekin noiztik, norekin eta zergatik egiten duten euskaraz.

Nekane Goikoetxea irakasleak gidatu du mahai-ingurua fakultateko ikasle talde baten laguntzarekin. Eskoriatzan bildutako entzuleen artean zeuden ikasleak, fakultateko langileak, Debagoieneko alkateak, ordezkari politikoak eta herriko jendea. Streaming bidez ere emititu da ekitaldia.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Euskara Batzordeak antolatu du ekitaldia.

Eguneraketa (2016-03-11):

- Ekitaldi osoa (streaming emandakoa).
- Ekitaldiko argazki sorta.
- Goienak argitaratutako argazki sorta.
- TUlanekidek argitaratutako argazki sorta.



Aburto, Asiron, Etchebest, Goia eta Urtaran alkate/auzapez euskaldunak MUko ordezkariekin. Ezkerrean, Bixente Atxa errektorea eta, eskubian, Begoña Pedrosa fakultateko dekanoa. (Argazkia: Goiena).